



NUALA Elkartea aniztasun funtzionala edo gaitasunen aniztasuna duten pertsonak eta lagunak dira, irabazi asmorik gabeko elkarte bat sortu dutenak. Beren helburua pertsona hauen ikuspena eta ongizatea bermatzea da. Inklusioa aktiboki promozionatu nahi dute gizartearen. Seme-alaben gaitasunetan sinisten dute eta zuekin partekatu nahi dituzte.

19 **NUALA** Elkartearekin solasean:

Nork ez du maite oinak ur ertzean sartu eta lakuaren ederrari so egotea? Sarritan ezetz pentsatu izan bada ere, denontzako dago lekua ur ertzean, baita uretan ere. Denok egin dezakegu igeri, denok jolas, denok ikusi, denok ikasi. Eta hori, Nuala elkarteari esker da, hein handi batean. Ez dago pertsona arruntik, behar arruntik ez dagoen modu berean: denok behar ditugu irria, jolasa, maitasuna eta bizipoza. Ba al dago horiek baino bereziagorik?



20 LAKU BAT

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Oihana Arana

Ahotsa: Tomas Lizarazu - BULEGO

Oinak ur ertzean sartuta
nahiz eta harriak topa
benetan eder ikusten dira
amuarrairak saltoka
saltoka

Behar da denon neurritza
egindako ispilu bat:
gure irrien isla
IKUSTEKO LAKU BAT

Lakuan lekua nahi duen
ororentzat beste dago:
han bi igel, bi zisne zuri hor...
eta badatoz gehiago.
Gehiago!

Behar da denon neurritza
egindako ispilu bat:
gure irrien isla
IKUSTEKO LAKU BAT

Isla bat
etxe bat
delako askotan

etxe bat
isla bat
delako askotan

Behar da denon neurritza
Egindako ispilu bat:
gure irrien isla
IKUSTEKO LEKU BAT